

Aurrez Aurre...IÑIGO ZABALETA-rekin

Escrito por Aratz Losada

Jueves, 07 de Febrero de 2013 14:28 - Actualizado Lunes, 18 de Febrero de 2013 17:54

Aste honetan, Aurrez Aurre deituko diogun elkarrizketa pertsonalizatu honetako bostgarren protagonistarekin jarraituko dugu. Elkarrizketa honen bitartez, gure jokalariak gehiago ezagutu ahal izango dituzue eta saskibaloia batean nolakoak diren jakiteaz gain, hortik kanpo ere zer nolako gustuak dituzten jakin ahal izango duzue.

Aste honetako protagonista IÑIGO ZABALETA izango da. Hona hemen, antolatzaile oñatiarrarekin mantendu dugun aurrez aurrekoa:



FITXA PERTSONALA:

Izena: Iñigo

Abizenak: Zabaleta Ugarte

Jaitze data: 1981eko abenduaren 28an

Jaioterria: Oñati

Dorsala: 8

Postua: Antolatzailea

Altura: 1,78 m

Pisua: 72 kg

1.- Noiz eta non hasi zinen saskibaloian jokatzeko? Ze orotzapen dituzu?

Saskibaloian Olakua dorre ondoko jolaslekuan hasi nitzen. Txiki txikitatik, makina bat ordu pasatzen nituen bertan auzoko lagunekin. Berdin zitzaigun euria egiten edo ez, hantxe ibiltzen ginen gau eta egun, gure dibertsio gogokoenetakoa zen. Federatu mailan oster, 13-14 urterekin hasi nitzen, garai hartan Oñatin federatu moduan jokatzeko hasi zitekeen lehen urtea zen. Gogoan daukat baita ere, lehenengo entrenamentuak ETEO zaharrean egiten genituela.

2.- Zein izan da saskibaloian ikusi duzun jokalaririk onena? eta zure idoloa?

Egia esan NBA-n makina bat jokalaria ikusgarri dago baina nik ez dut horrenbeste jarraitzen. ACB eta Euroliga oster asko jarraitzen dut eta bertan ez daukat inongo dudarik norekin geratzen naizen. Andres Marcelo "Chapu" Nocioni. Ikaragarria da mutil honek daukan griña, oso jokalaria konpletoa da. Baskonian ibili zen hasierako etapan ikusgarria zen bera jokatzeko ikustea. Orain berriz bigarren etapa honetan, nahiz eta urteek aurrera egin dutela argi dagoen, hor dirau berak taldeko ikurra izaten.

2+1.- Jokalari maniatikoa al zara? Ohitura bereziren bat ba al daukazu partida egunetan?

Egia esan ez naiz maniatikoa, ez daukat inongo ohitura berezirik partidu egunetan.

3.- Ze musika entzuten duzu partida baten atarian?

Ez naiz partida aurretik musika entzuten duen horietakoa. Baina pixka bat motibatzeko gustoko dut abesti martxoso batzuren erritmoan beroketa saioa burutzea.

4.- Saskibaloian bizi izan duzun momenturik onena? Eta txarrena?

Bi momentu txar etortzen zazkit burua. Bata senior taldean hasi berria nitzenekoa; taldea desagertu egin zen. Taldekide batzuk beste kirol bide bat hartu zuten, beste batzuk kirola egiteari utzi zioten eta azkenik ezin izan genuen taldea atera. Bigarren momentu txarra iazko denboraldi amaiera izan zen. Ezin izan genuen maila mantendu eta honekin batera taldearen agurra izan zitekeena aurreikusten genuen. Oso momentu zail eta deserosoa izan zen taldekide gehienentzat, batez ere urte askoan batera jokatzeko ibili ginenontzat.

Momentu onak ere ere asko daude; Ordiziako gipuzkoa mailako final fourra adibidez. Asteburu ahastezina izan zen. Hurrengo bi urteak ere ikaragarriak izan ziren, Autonomika mailan izan ginen urtea eta baita nazional mailakoa ere. Nahiz eta talde berria izan bietan lortu genuen denboraldi ikaragarriak burutzea eta mailaz igotzeko txartela eskuratu genuen. Azkenik, ezin ahastu Oñatiko plazan bizi izandako ospakizunak EBA mailara igotzea lortu genuen egunean. Nik, herrikoa izanda, ikaragarri gozatu nuen. Egun ahaztezina benetan.

5.- Zer eskatuko diozu urte berriari?

Nik gutxi daukat eskatzeko. Garbi daukat herriko jokalaria izanik opari handia dela niretzat bitzitzen ari naizen esperientzia ahaztezin hau. Kirol arloan, lan eginez gero, emaitzak iritsiko dira, ez dago ezer eskatu beharrik, asteko lanean dago sekretua. (...) Eskatzekotan... nire taldekideen artean ez dadila lesiorik izan.